

Etorkizuneko ametsak tertulia.mp3

Esataria: Gaur lau gazterekin egin dugu hitzordua, haien etorkizuneko ametsa zein den jakiteko. Egun on bostoi.

Hasteko, Carmenekin hitz egingo dugu. Zu, Carmen, diseinatzailea zara, eta, herrian modadenda bat irekitzeaz gain, hainbat desfiletan erakutsi dituzu zure diseinuak. Zein da zure etorkizuneko ametsa?

Carmen: Ba, nik modaren munduan jarraitu nahiko nuke, diseinatzen eta josten. Pasarela garrantzitsu batean ikusi nahiko nituzke nire diseinuak; munduan zabaldu nahi nuke nik diseinatutakoa!

Esataria: Eta zurea, Goiatz?

Goiatz: Ni pilotaria naiz, baina ez profesionala, ez baitago horretarako aukerarik; beraz, nire ametsa izango litzateke... nesken pilota profesionala sortzea, gizezkoetan bezala; hori lortzen ez badugu, gutxienez orain arteko emakumeen txapelketetan parte hartzen segitu nahi nuke.

Esataria: Galder dantzaria dugu. Kaixo, Galder. Zer diozu zuk?

Galder: Kaixo, ba nik dantzan jarraitu nahiko nuke beste urte batzuetan behintzat. Konpainia handiago batean aritu nahiko nuke, eta, horretarako beharrezkoa balitz, atzerrira joango nintzateke, zalantzarik gabe. Ez da erraza, baina, auskalo, bizitzak buelta asko ematen ditu!

Esataria: Beste artista bat badugu gaur gurekin, Estitxu. Estitxuk musika ikasi du eta eskusoinua jotzen du. Egun on.

Estitxu: Egun on. Tira, oraindik ez ditut kontserbatorioko ikasketak bukatu; aurten bukatuko ditut. Bukatutakoan, ez nuke nahi klaseak ematera mugatu; oreka bat izan nahiko nuke, hau da, klaseak eman bai, baina ez nituzke antzokiak alde batera utzi nahi; sortzen jarraitu nahiko nuke.

Esataria: Eta, bukatzeko, zientzialari bat dugu gurekin, Maialen. Kaixo. Zein da zure ametsa, Maialen?

Maialen: Hepa. Ni ikerketak motibatzen nau gehien, hau da, arazoei eta zalantzei erantzunak bilatzeak, baina ez nuke nahi beti laborategi batean lan egin, artikulu zientifikoak idatzi nahiko nituzke eta zientzia jendeari hurbildu nahiko nioke, dibulgatu, baina batek daki...

Esataria: Ba, eskerrik asko, eta, gure aldetik, etorkizunean zuen ametsak betetzeko zortea opa dizuegu lauroi. Eutsi!

Bostak batera: Eskerrik asko!